

## Aurkezleak euskaraz trebatzeko ikastaroa

KIROL ETA AISIALDIKO ekitaldi-tarako sarritan ez da erraza izaten euskaraz ondo arituko diren aurkezleak aurkitzea. Hutsune hori bete nahian Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak ikastaroa antolatu dute. Irakasleak ondokoak izango dira: Manu Marañon, Jon Alegria, Arritxu Iribar, Julia Marin eta Xabier Usabiaga. 16 ordukoa da ikastaroa eta lau larunbatetan izango da Donostian, azaroaren 22an eta 29an, eta abenduaren 13an eta 20an. Informazio gehiago: [www.kirolaeuskaraz.net](http://www.kirolaeuskaraz.net).

## Galesa tutik ere ez

*THE GUARDIAN* egunkariaren bertsio digitalean irakurri dugu. Errepideko seinalean ingelesez hala jartzen du euskarara honela itzuliko genukeena: “Ez sartu ibilgailu astunak”, eta galesezko itzulpena: “Ez nago bulegoan. Mesedez, itzultzeko lanak bidali”. Nola liteke horrelakorik gertatzea? Bada, Swansea herriko Udaleko norbaitek itzultzaileari e-postaz bidali zion ingelesezko esaldia galesera itzultzeko eta e-postak automatikoki itzultzailearen mezua bidali zion (“Ez nago bulegoan...”). Udaleko langileak mezua hartu eta seinalean jarri. Galesaren aztarrenik ere ez zuen izango arduradun horrek...

## Esaldien “zuhaitza”k automatikoki

IXA TALDEAK joan den astean Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroan, hitzen analisi morfologiko eta esaldien analisi sintaktikoak egiteko aukerak landu zituen. Ikastarora joaterik ez bazenuen izan sarean bertan bada aukera “zuhaitza”k automatikoki egiteko Morfeus eta Freeling-en bidez. Taldearen asmoa sareko erabiltzaileen artean oinarritzko ariketa bilduma eztabaidatu eta sortzea da. Informazio gehiago: [www.unibertsitatea.net/blogak/ixa](http://www.unibertsitatea.net/blogak/ixa)

### BAHEA

### TALAIAN

## Frantzia euskal erakundetzearen aurka

Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako (CCI) langileek greba egin zuten joan den astean. Horrek adierazten du Frantziako Estatuak Ipar Euskal Herriaren erakundetzeari hesiak jartzeko duen interesa. Ez da azkenaldiko lehenengo eraso —horra hor Euskal Herriko Laborantza Ganberaren jazarpena—, eta ezta azkena ere. Paris politika publikoen gaineko erreforma ari da prestatzen eta horren harira dator greba. Erreformaren ondorioz, 160 lanpostu zuzen dituen CCI desagertu liteke.

Erreformaren helburua oraingo CCI kopurua murriztea da, eskualde-ganbera bakarrean zentralizatzeko. Akitaniaren kasuan Bordelen kokatuko litzateke. Baionakoa eskualde-sukurtsal bilakatuko litzateke, autonomia galduz. Ondorioz, enpleguak gal daitezke eta jarduera murriztu industrian, portuetan (Baiona eta Donibane Lohizune), heziketan, eta abar.

Parisen politika horrek, bestalde, euskal erakundetzearen kontrako eraso garbia azaltzen du. CCI da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa batzen dituen erakunde bakarra eta zaharrera (1726koa). Erreformak aurrera egiten badu euskal erakundetzearen asmoetarako kolpe gogorra izango da. Frantziako Estatuak, Espainiakoa bezalaxe, Euskal Herriak bere erakundeak osatzearen beldur dira, horien bidez bertako arazoez eta etorkizunaz erabakiak hartuko dituelako. Frantziako Estatuaren erasoak balio behar luke Hego Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialak mugi daitezken eta elkartasuna adierazi.

Juan Mari Arregi

Sagrario Alemanek *Euskonews & Median* esanak: “Irakaskuntzan D ereduak euskal eremuan gora egin zuten politikoliki; A ereduak desagertzen ari zen baina gaur egun berriz indartzen ari da. Orain beste eredu bat sartu nahi digute eta pentsatzekoa da horrek kalte egin behar diola D ereduari eta euskara ikasteari. Prestigioaren aldetik begiratzen badiogu, gure haurtzaroan euskara gutxietsi egiten zen. Gero euskarak prestigio pixka bat hartu zuen, momentu batean euskara beharrezko izanen zela pentsatu izan zen eta uste dut horretan ere atzera egin dugula. Beste alde batetik, euskararen kontra dauden batzuk ez dakit gehiago diren, baina bai harroago dabiltzala”.

Euskararen Jatorriaren Elkarteko kideek Iruña-Veleiako aurkikuntzei buruz *Diario de Noticias de Alava* esanak: “*Noticias de Alava* egunkariko albiste batean esaten zaigu iturriarik aipatu gabe, adituen batzordearen txostena eguberritako argitaratuko dutela baina batez ere filologian oinarrituta egongo dela eta ez hainbeste arkeologoen aurkikuntzetan (...) Guretzat filma originala Iruña Okako arkeologoen eta ikertzaileek aurkitutako materialarekin idatzi dutena da, beren datazioak eta analisisekin batera jakina eta hau ezagutzeko eskubidea ozenki aldarrikatzen dugu”.

## Irtenbide duina irudikatzearen zailtasunak

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

**ETA-K** Nafarroako Unibertsitatean egindako atentatuan ez zen hildakorik edo zauritu larririk izan, eta lehenengo balorazioan bederen hori da azpimarragarriena. Hortik aurrerako azterketak ezagunak dira: euskal gizarteak ekintza hauen aurkako jarrera argia eta tinkoa dauka eta desager daitezzen eskatu du sarri eta modu askotan. Ezker abertzale nagusiko alderdi politiko eta erakundeak ezik, gizar-tearen gainerako eragile politiko guztiek gaitzetsi edo arbuiatzen dituzte halakoak. Bomba-autoaren moldeak behin baino gehiagotan sortu ditu triskantza handiak eta hildako ugari eragiteko arriskua handia da. Ezaguna da, suarekin dabilena azkenean erre egiten da.

Askorentzat, alabaina, badirudi arbuiatzeen orrialdea dela garrantzitsuena halakoetan, eta egia esan, atentatuen beroan askoz gehiagorako tarterik ez da izaten. Funtsezkoena, ordea, bortizkeriaren orrialdea pasatzea izan behar du, eta dagoeneko demostratua dago hori errepresioz ez dela lortuko. Elkarrizketan oinarritutako akordio politikoak bakarrik ekar dezake irtenbide iraunkor eta zentzuzkoa. Aipatutakoa esamolde klasikoa bihurtu da arbuiatzea eta errepresioaren sareetan harrapatuta geratu gura ez duten guztientzat, baina aitortu behar da esparru zabal horretan ere gero eta gaitzago egiten dela irtenbide duinik irudikatzea.

Estatuaren errepresioa eraginkorra da epe motzean, etakideen atxiloteta etengabeaz gain, ENAMeko egitura sozio-politikoak kolpatzen jarraitzen du baldarkeria handiz. Horrek egitura politikoak ezkutatzera eramán du ezker abertzalea eta arazo franko ere ekarri dio, baina



ETAk joan den astean Nafarroako Unibertsitatean egindako atentatuaren irudia.

desagerrarazita dagoela gizarteratzea erabat interesatua edo erabat inozoa da. Indar handia erakutsi duen sektore politikoa dago burua behar bezala agertu ezinik, eta horretarako aukerak dituenen ohi bezala azaleratuko da. Irtenbide duinak irudikatzea gaitza da, boluntarista askotan, baina beti ere errepresioaren zurrumbilo soilean atrapatua geratzea baino justuago, eraginkorrago eta duinagoa.

NBEko Giza Eskubideen Batzordea ere aspaldi dago ohartua Espainian justizia eta giza eskubideekiko begiruneen defizitak ez duela irtenbide samurrik eta berriz ere gomen-dioa luzatu dio, tortura aukerak baztertzeko inkomunikazioa ezabatu beharko lukeela. Baina, berriz ere, komunikabide gehienetan oharkabean pasatzen da aholkua. Iruñean atxilotutakoek beste behin ere torturak salatu dituztela oro har isilarazi den moduan.

**UPN-K** eta PPK gauzatu dute jada apurketa, Euskal Herrian bederen

gutxik irudikatzen zuten moduan gainera. Ikusi beharko da hori nola irudikatzen den Nafarroako politikaren egunerokoan. Oraingo egoera, PSN lagun, kontrolpean dute nabarristek eta epe ertainera arazorik ez dela izango dirudi. Foru hauteskundeetarako bi urte eta erdi geratzen da oraindik eta ordu-rako bi alderdien arteko ituna bertutuko dela pentsa liteke, PPK malguago jokatzen badu behintzat. Eta bestela hauteskundeen ondoren, bakoitzak bere indarrak neurtuta, baina ez da hori popularrei interesatzen zaiena. UPNk Espainian alderdi gisa joko handiagoa eman-go dion itun berria nahi du eta lortuko du. Coalición Canariak egin berri duen kongresura eramandako ponentzian "nazioa"z hitz egiten da ("Espainiako nazioa ez da existitzen"), Espainia Konfederala aldarrikatzen da, Kanarietako burujabetza, Espainiako Konstituzioaren erreforma, erabakitzeko eskubidea... Eta PPK ez du Kanarietako koalizioa gobernua apurtu.